



Antxinako fotografixia



1947ko Arantzazu eguneko prozesioa

1.947ko argazki honetan ikus daiteke Arantzazuko Amaren Egunean gaur egun egiten den bezala, orduan ere, prozesioan joaten zirela Arantzazura. Prozesioaren hasieran, diputazioko ordezkariak doaz eta atzekaldean berriz, herritarrak. Esan behar, egun handi hau ospatzerakoan, diputazioko ordezkariak Arantzazun bazkaltzen zutela eta bazkariaren ostean, dantzariak mahaiburuen aurrean dantza egiten zutela. Argazki honetan agertzen dira besteak beste, Juan Francisco Puente diputatua, Jose Ramon Aguirreche Irungo alkatea eta Agustin Brunet Gonzalez diputazioko presidentea, Arantzazuko fraileekin batera, lehen-go elizarantz zihozten eskilaretatik jeisten. Atzekaldean ikusten den eraikuntza Hospederia da.

Jakina denez, Arantzazuko monastegiak hainbat sute jasan zituen 1.556ean, 1.622an eta 1.834an eta aldi bakoitzean berriz eraiki behar izan zuten. Azkenengo sutearen ondoren, eliza eta komentua berriz eraiki ziren, baina elizan ez zegoen bertarazten ziren erromes guztientzako lekurik. Horrela, 1.950ean hasi ziren gaur egungo santutegia eraikitzen.

Argazkia KUTXA FOTOTEKATIK aterata dago.

CORTABARRIA INMOBILIARIA



Kale Barria, 42 behea
Tfnoa: 78 05 87
OÑATI

- Etxebizitzak alokatzeko eta salgai.
- Kontratuak
- Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen tramitazioa.
- Zergen likidazioa.

ELORZA

Burdindegia eta Brikolajea

Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80
OÑATI